

**IHOLDIKO  
TOBERAK**

**(1974)**

Frantses Adminiztrazioneko jaun bat mintzatzen da frango luzaz eta... frantsesez. Mera eta apeza, mugitu gabe, jaun horri begira dagotzi. Ixiltzen denean horra zer dioten :

MERA - APEZA

- Mera : Jaun erretora ; hor ez da harat ez hunatik. Argi eta garbi ageri da nun den gure egitekoa. Nahi balin badugu gure herriak itxura berri eta aintzi-nakor bat har dezan, Pariseko Jaun serio eta boteredun horren erraneri segi gaiten ...
- Apeza : Uste duzu zinez...
- Mera : Bai eta duda muda izpirik gabe. Orai beretik behar dugu geroari pentsatu eta geroa prestatu. Lot gaiten beraz lanari. Eta dautzut, fruituak laster ikusiko ditugula.
- Apeza : Ez ginuke halere tarrapataka hasi behar...
- Mera : Lehen ; gauzak biziki emeki zoatzin. Orai aldiz ikaragarriko jautzia egiten dautzute, inuminixtante, eta gehiago dena guhaur batere ohartu gabe. Beraz, berriz ere errepikatzen dautzut behar dugula ahal bezain fite ernatu, gure herriak atxik dezan bere gradoa eta zabal bere fama... Fama ona !
- Apeza : Agian ! Holo hola , fama txar aski ba dugu eta...
- Mera : Badakit zer erran nahi duzun. Badakit. Zuri, danzing-a heldu zaitzu beti gogora, ifernuko debru gorri adardun bat ikusten bazinu bezala... Bainan, aitor zazu halere, ez dela hor bekatu mortalik. Eta danzing horri esker, gazteak trumilka etortzen zaizkigu, gure herriari bizitasun haundi bat emaiten diotela.
- Apeza : Bizitasun haundia... Emeki, emeki. Zernahi arrabots,izaitekotz ba. Bestalde ez dela hor bekatu mortalik, hori nork daki ? Barne hertsu eta ilun batean, denak tinki tinkia omen, nago, gazte horiek ez ote duten haragiari sobera pentsatzen, arima ahantziz ?

- Mera : Garizuma denboran bederen apur bat maltsotzen dira...
- Apeza : Beharrik !
- Mera : Bainan, horiek hola onart dezagun halere danzing horri dela medio gure xokoa ezagutuago dela. Gazteen aho mihi guzietan ez da gure herriaren izena baizik entzuten. Eta ikusiko duzu, laster, herri hanitzek etsenplutzak hartuko gaituztela. Ikusiko duzu... Gure herritik egin behar dugu Euskal herriko barneko perla.
- Apeza : Perla guziak ez baitira urrezko...
- Mera : Zer munta du ? Perla den ber... Hemengo problema ontsa konprenitua dut. Gure kanpanak ez dira gehiago laborantzatik bakarrik bizitzen ahal. Turismoa behar duzu sartu. Turismoa brauki. Eta turismoak ekarriko dauzkun abantailekin, berritzen eta antolatzen ahalko ditugu bide, elektrika, arrabote etxe zahar eta beste zernahi gauza... Horrela gure herria Frantzia guzian eta nork daki, Frantziatik kanpo ere ezagutua izanen da eta hori da guretzat, egungo egunean baitez padakoena. Turismoak gaitu salbatuko, jaun erretora, ez eta herrian ditugun zerriteiek !
- Apeza : Zerri eta abereekin laborariak dituzten goiti-beheitiak hobekiago ezagutzen ditut turismo lilluragarriaren furfuriak baino...
- Mera : Apez guziena da, beti balantzan egoitea... Badakit ez duzuela sekulan lehen urratsa eginen. Haizea nora, aise hara...
- Apeza : Zer derasazu, ez zaitut sekulan entzun horrela mintzatzen.
- Mera : Arrazoina duenak bere hartan fermu agertu behar du. Eta nik dautzut arrazoin dutela ; eta memento huntan, jaun erretora, zure laguntza eta adiskidantzaren beharretan nago.
- Apeza : Elgar beti ontsa aditu dugu...
- Mera : Geroan ere, herriaren onetan, eskuz-esku ibili behar dugu.
- Apeza : Jainkoak nahi balin badu segurik...
- Mera : Aspaldixko hontan, ideia ttipi bat kitxikan ari zaut... Eta lehen bai lehen obratu nahi nuke. Gure funtser hurbil, ur xirrixta bat pasatzen da eta

adiskide batzuekin solastaturik nere karkulen arabera , "lac" baten egiteko parada ba omen ginuke. "Lac" bat eginez, pentsa, oraikoaren gainera, zer arrakasta bil lezakeen gure herriak !

Apeza : Arrakasta, arrakasta... "Lac" horren itzulian, erdi buluzirik egon litakeen jende pagano batzuen jestu itsusiek ez ote lezake gure gazteen fedea epel edo gal-araz ?...

Mera : Ba pentsa ! Hemen gaindi dabiltzan turistak frango planttakoak dira, eta biziki maite dituzte gure eliza zaharretako meza-bezperak, bereziki eskuaraz direlarik. Hemengo folklorea arras gostatzen zaiote.

Apeza : Hobe segur. Hoinbeste profeta faltsu nabaritzen da nun nahi...

Mera : Bestalde, bestalde, zuretzat ere ez laiteke hain gaizki...

Apeza : Nik zer dut ikustekorik "lac" horrekin ?...

Mera : Zure haurrak ...

Apeza : Ene haurrak ?...

Mera : Bai . "Goxa-Leku"-ra heldu diren haurrek, ura maite dute... Noiz nahi mainatzen ahalko dira. Mendia eta itsasoa elgarren ondoan... badea gauza loriagarriagorik?

Apeza : Arrazoina duzu, arrazoina. Ez nuen horri pentsatzen...

Mera : Ze ... ba ! Hemendik zombait urte barne, ikusiko duzu, etxe hori ez dela aski handia izanen... eta beste bat edo bi beharko dituzula... Orduan, kontexko izanen zira, jaun meraren laguntzaren ukaiteaz, permisa berrien ardiesteko... Ez dea hala, jaun erretora ?

Apeza : Bai, bai... Bainan nik etxe hortaz arta hartzen dut, karitate egiteko.

Mera : Eta zer uste duzu, nik ere ez dutala nere putzua karitake egiteko egiten? Bixtan da, baietz...

Apeza : Hola denaz geroz... zure ideia ez dut batere txarra hatxemaiten. Urrunetik etorri haur pobre horiek badute denen beharra...

Mera : Beraz enekin ados zira ? "Lac" horren egiteko benedizioea emaiten dautazu?

Apeza : Benedizioea eta absoluzioea ere bai.

(eta apeza jalgitzen da).

\_\_\_\_\_ MERA bakarrik \_\_\_\_\_

Mera : (kantuz ) Bat eta esperantza, jaun andereak. Apeza bildua dut, orain beste bizpahiru ene alde ezarriz geroz, "lac" -a egina balitz bezala da. Abilki jokatu behar dut, abilki, bainan iduritzen zaut hogeita hameka ta esku dutala...

Alabainan, hemengo jende zozoak ez du konprenituko," lac" hori eginenz zer abantailak ekarriko daiztan... ez bakarrik diru aldetik, ... bainan ohorea, ohorea... Ha, ha, hori hori aspaldian nahi nuena. Ez naizela nor-nahi, ni !

oooooooooooooooooooo

=====

ooo ooo ooo ooo ooo

MERA - MAYI ANTZO

-----

- Mera : Jainkoak dautzula egun on...
- M. Antxo : Bai zuri ere jaun mera... Arrunt seriosean zaitugu egun. Zer zira, berri txar batekin heldu?
- Mera : Txarra ala ona izanen den... hori zuk erran beharko...
- M. Antxo : Nik, berri onak maiteago ditut, txarrak baino.
- Mera : Beraz, ekartzen dautzutan berria, ona izanen da...
- M. Antxo : Agian ba. Hea, zer den zure arrangura...
- Mera : Mera naizenaz gero, herriko harat-hunatetaz grinatu behar dut eta bereziki geroari buruz bermatu...
- M. Antxo : Badakit, gizon leial eta zintzoa zirela. Guk behar bezalako mera.
- Mera : Milesker, milesker. Ez naiz segurki laudorik gose, ez eta apantziarik ere gero. Baina nere egitekoak bete behar ditut, eta dautzut, ez dela beti erretx. Hoinbeste kontrario ba dugu nun nahi...
- M. Antxo : Jainkoaz ez gaiten xehetasunetan sar. Nere gostuz badakit zer ikusten dutan danzing hunekin... Bainan, erradazu bada...
- Mera : Horra bi hitzez. Zozoa ez denak konprenitua du, turismoa beharrezkoa dela gure eskualdean. Bainan zorigaitzez gure herria itsasotik urrun da eta turistek meinatzea biziki maite. Beraz, mendiari eta urari hurbil izaiteko, hemen berean behar ginuke itsaso ttipi bat muntatu?
- M. Antxo : Zer diozu ? Biarritzetik hunaraino itsasoa ekar-arazi nahi zinukela ? Baduzia burutik ?
- Mera : Ez, ez, utz dezagun Biarritzeko itsasoa, Biarritzen. Baina erran nahi dautzutana hau da, "lac" baten egiteko behar diren guziak, ba ditugula hemen berean eta ontsa laiteke abantail hortaz baliatzea.
- M. Antxo : "Lac" bat gure herrian ? Fichtre !
- Mera : (Bortitz) Eta zendako ez ?
- M. Antxo : Ha, ni ez nintake batere kontra. Izaitekotz alde. Jendea den ber, eta diru

poxi bat irabaztekotan, neri denak ontsa zauzkit. Bainan ez dakit hemengo jendeak nahiko duenez ? Apeza segurik kontra ukanen duzu, hori segur. Aski eta aski komedia ibilirik ba du gure danzing hau debekatu beharrez...

Mera : Apeza mezaren emaiteko pagatua da ez eta herriko harat-hunatetan sudurra sartzeko ! Bainan kasu huntan segurik, ez naiz kezu ari apezarentzat, eta beharri xilorat erraiten ahal dautzut, gure alde dela. "Coxa-leku"-ko haurren gatik...

M.Antxo : A bon... Hobe, hobe... Eta, ez duzu beste trabarik ikusten ?

Mera : Ba pentsa ! Frantses Administrazioeiko jauneria guzia nere alde dut eta zernahi gerta, bururaino lagunduko nautela errana dautate."Lac"-aren itzulian etxe-berriak eginen ditugu, izanen da segur, kanpotiar eta jakin zazu, zure ostatuak ukanen duela koka ahala jende. Haunditu edo bederen goratu beharko duzu... eta oraiko araz 2 étoiles edo 3 étoiles-eko hotel bat bilakatuko da...

M.Antxo : Ollallalala... pentsatzeak berak buru-burtxoroak emaiten dauzkit...

Mera : Eta nork daki ez ote duzunez "4 étoiles"-etako hotel berri bat muntatu beharko hemendik urte labur batzu barne ?

M.Antxo : Ori... danzing hau beraz laster hetsiko dut. Asea naiz gazte barraka horietaz, Asea.

Mera : Hoteleko irabaziak biziki gehiago emanen dautzu... Bainan, ez dezagun ahantz, ez gira hastapenean baizik...

M.Antxo : Egia. Egia. Ahanztera nindoan. Eta behar bada, eskukaldi baten beharra bazinuke, gauzen akula-arazteko. Badakizu, jaun mera... ni prest naizela zure laguntzeko... Zer egin dezaket...

Mera : Fitxik, fitxik... Errana dautzut gauzak eginak balire bezala direla.

M.Antxo : Bai, bai, bainan batzuetan.

Mera : Egia duzu aferetan ez gira sekulan aski pruntak. Behar bada, ontsa egin zinezake kontseiluko batzuer, gauza horien aipatzea, zure gisan, batzu biziki kasko gogorrek dira eta arrunt moda zaharrekoak. Zuk behar zinuzke bildu... alegia deusez...

M.Antxo : Hori baizik ez bada, jaun mera, eginen ditut nere eginahalak  
eta gehiago ere !

oooooooooooooooooooo

=====

ooo   ooo   ooo   ooo



MERA - GAXIN  
-----

- Mera : Baimen guziak ez ditut oraino eskutan ; bainan hemendik zonbait egun barne, segurra bezala izanen da. Zer diozu, zuk, hortaz ?
- Gaxin : Ala Jinkua ! Ala Jinkua! Hauxe bada ateraldia egiten dautazun ! Sekulan ez nuen erranen, gauzak hoin ontsa ikusten zinituela. Sekulan.
- Mera : Beraz ontsa zaitzu, zuri ere...
- Gaxin : Ontsa zaitanez ? Ba, ba, ba, ba, eta ene laguntza guzia ukanen duzu bi begiak hetsirik !
- Mera : Hobe, hobe. Ainitz eta ainitz obra ukanen dugu egiteko... ukanen dugu eta ukanen duzu ! Hortakotz , zu deitu zaitut, baitakit, gizon serio eta lan buruzagi paregabea zirela. Badakizu ; egungo egunean, zu bezalako guti da hemen gairi. Gehienek, ez dakite beren aferen kudeatzen. Zonbait beldurtiegi dira ; besteak aldiz buru-bero segidan aberastu nahi batzu.
- Gaxin : Ni; ene ustez segurik, beti gizonki jokatu naiz. Gizonki jokatzea, horra ene eginbide bakarra.
- Mera : Arrazoina duzu segur. Nik ere gauza bera egiten dut. Gizonki jokatzeak, bere fruituak ekartzen ditu, ez behar bada segidan, jendea, berez txarra eta motxa delako, bainan luzarat, luzarat, ikusiko duzu, guk egin guziak onartuko dituztela, ez bakarrik onartuko, bainan kontexko izanen direla, gure gatik, zernahi abantail ardietsiko baitute... eta beren moltsak jorituko baitira...
- Gaxin : Horiek hola ; nere aldetik zer nuke egiteko ?
- Mera : Lehenik, galdatuko dautzut zure konfientzia osoa. Eskuz-esku behar dugu arizan. Elgar lagun eta susta dezagun...Gerokoak gero.
- Gaxin : Gerokoak zer izanen diren, hori Jainkoak baizik ez daki. Anartean, jaun mera, sinets nezazu, ni baitan konfientzia ukaiten ahal duzula, eginen ditugun etxe berrietan ezarriko dugun "ciment armé" hortan bezenbat.
- Mera : Xuxen xuxena heldu zira ori... Etxe berriak. Horra, horra zure lana zer

izanen den. Etxe berrien egitea... Jadanik aipatua dautzutan bezala, gure funtser kontre izanen da delako "lac" hori. Egia erran, funts horien saltzeak pena emaiten daut, eta nola !, bainan bortxatua bezala naiz... Alabainan etxe berriak egitekotz... nunbait egin behar dira. Alta, ez nuke nahi pentsa dezazun, pentsa dezazuen, diru egiteko eta aberatsteko saltzen ditudala. A, hori ez... Bortxatua naiz, bortxatua... gure herriaren onerako.

Gaxin : Biziki ontsa konprenitzen zaitut, biziki ontsa, eta zure gogo bereko naiz. Ez dira Euskal Herriko mera guziak, beren herrientzat zu bezala sakrifikatzen... A ez... Ba duzu segur merezimendu !

Mera : Jende guziak gu bezain inteligentak balire, ez ginuke hoinbeste ixtorio hemen gaindi.

Gaxin : Ainitz aldiz aipatu diet, mera zonbaiti, beren herriaren itxuraz aldatzea eta berritzea, erran nahi baitut, gure herrien turismoari buruz bihurtzea. Baina gehienek ez dute deus entzun nahi eta beren ziloan dagotzi, erdietsituak bezala. Beharrik zure solasek amini bat bederen kontsolatzen naute eta aitortzen dut, zu bezalako gizonek, barkatu, zu bezalako jaunek, dutela salbatuko gure eskualdea.

Mera : Emeki, emeki. Ez dut ahal dutana baizik egiten...

Gaxin : Ahal duzuna baizik ; baina hori biziki ontsa da. Bestek ez dute deus egiten. Zonbat aldiz ez diet aipatu, etxe edo borda xahar guzien kondatzea eta salgei-ezartzea. Bordeleko eta Pariseko aberatsek eros lezazkete eta gogotik... Ez dute hori ere egin nahi ! Alta, borda eta etxe horien antolatzeak edo berritzeak lana eman lezake hemengo jendeari eta bereziki guri, bainan ba pentsa... horren egiteko ere ez dira kapable ! Trixteak baino trixteagoak dira.

Mera : Gure herrian segurik, laster ohartuko dira turismoari eta borda edo etxe zaharrak arrapikan salduko edo berrituko dituzte. Bestalde ; turismoaren geroari pentsatuz, baina diruari batere atxikia izan gabe, arras ontsa

konprenituko duzu, ene funtsak beren egiazko prezioa baino karioxoago salduko ditudala... alabaina ez da egun guziz gertatzen "lac" baten ondoan izaiteko parada...

Gaxin : Galdegina eginen dautzut.

Mera : Ontsa da, ontsa. Zer baitetara helduko gira.

Gaxin : Hain segur etxe horietarik zombaiten jabe izan ... zintazke.


Mera : Zombaiten, Zombaiten... hitz haundia da. Bat edo bi hasteko, ez litake gaizki.

Gaxin : Ori, zure laguntzeko nik ere beste bat eginen dut, en kondu...

Mera : Ez zautzu dolutuko !

Gaxin : Uste dut jaun mera, gu biak, biziki ontsa akomeatuko girela !

( eta eskuak tinkatzen dituzte).



ANTXO            KONTSEILARIAK

( L. B. H. )

- Antxo : Rikarño bana, zintzur horien leuntzeko ?  
Kontseiluko biltzarre horietan zernahi solas ibiltzen omen baituzue...  
Orai ere, harat zoazte , ez ?
- L. : Ba, guk ez dugu ez gauza haundirik erraiten...
- B. : Funtsean, merak ez daukuk denborarik ere uzten...
- H. : Arrazoina duk. Beti bera ari duk, taltaltal, Hazparneko misionest zahar bat bezala...
- L. : Beharrik hor diuk, bestenaz ez dakiat batere zer egin ginezakeen, guhaurek...
- B. : Egin ginezakek ahal duguna to.
- Antxo : Ez baigira bakean, orai ? Zer mila sorgin behar duzue gehiago ?
- L. : Delibero haundiak baditugu hartzeko. Hemendik zonbait urte barne gure herria arrunt bestelakatuko da... Ez dakit denak gure alde ukanen ditugunez... eta oraiko bakeak iraunen duenez...
- Antxo : Bozetan pasatu zireztenaz gero, dretxo guziak badituzue herriko harat-hunetan.
- B. : Zu aise mintzo zira. Zuk ere, danzing-aren egiteko dretxoa bazinuen... ikusi duzu gero, zer ixtorioak ukan dituzun...
- Antxo : Egia, egia. Bainan, saltsa eta mendekio guzleri ez dut amor eman eta danzing-a sekulan bezain ontsa kurritzen da. Holako horietan kopeta ukan behar da, kopeta. Eta zuek ere, kopeta poxi bat balin baduzue, ikusiko duzue, "lac" hori eginen dela !
- H. : Ba, gu, ez gira ez kontra. Bainan buru-hauste andana bat gehiago ori, idurita etxekoekin berekin ez dugun aski. Gure aintzineko kontseilukoek bederen ez zuten holako ixtoriorik ... Heiek, bozak aintzin, Elizako murruak eta teilatua poxi bat antola eta paso... Apezaren boza holaxet ukaiten zuten eta apezarenarekin batean, herri guziarena. Ba, ez ziren kexu ari...

Cu aldiz, jo hunat, jo harat, beti bidearen gainean gira, biltzarrez  
biltzarre, eta ororen buruan, zertarako ?

Antxo : Fruitu ederraren ukaiteko, lehenik hazia erein behar da. Eta ereite  
hori, ez da beti erretx...

L. : Ba, ba dakigu zerbait...

Antxo : Are... huts-kizue baso horiek, beste xorta bat eskaintzen dautzuet...

B. : Hop pette... Polliki, polliki... Ez ginuke berotu behar...

Antxo : Ez dautzue, "Rikard" txar batek kalterik eginen...

H. : Ez dugu lehena gero...

Antxo : Bospasei harturik ere, ez zirezte segur kantituko... Eta ikusiko duzue  
ideiak argiago ukanen dituzuela...

L. : Bota beraz, bota.

B. : Beranta ukanen diaguk...

Antxo : Ez zaituzte ez jaun merak erasiatuko...

L. : Batere ez dakit. Frango "jauntzen" hasia dugu azken denbora hotan...

Antxo : Ba pentsa ! Enekin segurik ez da sekulan orain bezain laketa izan. Ez, ez,  
kontent izaiten ahal gira gure meraz, kontent. Ez da segur nor nahi.

H. : Beraz, zuk ere begi onez ikusten duzu "lac" hori ?

Antxo : Ze ba, ze ba... Gure herriarentzat baitezpadakoa da. Turistak etorriko  
zauzku, nun nahitik... Parisetik, Hollandatik, Alemaniatik...

L. : Alemantsak frango beroak direla diotek... Nork daki ez ote ditugunez  
bat edo beste bilduko.

Antxo : Erraiten dautzut , nik, erraiten, memento goxoak beharrak dituzuela oraino,  
zuek, batere uste gabeen. Memento goxoak ! Funtsean, edozoinak bezainbat  
merezi dituzue...

H. : A hori bai... Hori bai. Beraz, zernahi jende jinen dela uste duzu ?

Antxo : Mundia, mundia. Bat bestearen gainean egon beharrak dira... Ehunka ikusiko  
dituzue nexkak, erdi-buluziak eta xilkoa iguzkitarat... Ehunka...

- L. : To ; botoinak finki josten ahalko ditik gure amak... nik dakitan leku batean...
- H. : Hik errak...
- Antxo : Bestalde ... Zinema sala berri bat ere eginen dela diote, filma arrado guziak pasatuko dituenena... Kazino ttipi baten fama entzuna dut hor gaindi. Parisetik etorriko omen baitira "Folies Bergères"-eko dantzari xarmegarrienak.
- B. : Nork atxik gu ? Gaur hemen aipatu guziak egia bilakatzen ba dira, gure herriak ukanen duen aipamena ez duk ttipia izanen to !
- Antxo : Gauzak haundi ikusi behar dira, haundi. Eta ez beldur izan zerbeiti lotzeko. Duda-mudak utz ditzagun bazterrera. Segi zaitetze jaun merari. Il faut foncer, mes amis, foncer !
- L. : Foncer pour s'enfoncer. Jo aintzina. Eta goazen orain hemendik... tenorea dugu...
- Antxo : Beste xorta... Beste xorta bat. Azkena.
- H. : Ez, ez, ez, ez...
- Antxo : Baietz gizonak. Baietz.
- H. : Ezetz, emaztekoa, ezetz.
- Antxo : Orain berantegi da, zerbitzattia dut.
- L. : Edan dezagun beraz, besten pusatzeko...
- B. : Eta kuraia hartzeko... gure "lac" horren alde bozkatzeko !

oooooooooooooooooooo

=====

ooo ooo ooo ooo

APEZA °°° EMAZTEAK

=====

( Gaxuxa Tarttalet, Kattalin Saltsa eta  
Maileona Harohaundi).

Gaxuxa : Egia dea, jaun erretora, egia dea nik entzun dudana? Baizik eta...  
hemendik denbora guti barne "lac" haundi bat ukanen dugula ?

Apeza : Egia da bai, naski. Bainan ez da oraino egina.

Kattalin : Zu ere, "lac" horren alde omen zira...

Apeza : Alde, alde, zer egin dezaket bestela ? Jada, danzing-horren kontra sobera  
garbiki mintzaturik, aski ixtorio ukanik ba dut.

Maileona : Alta arrazoin zinuen ! Danzing hori dela medio, gazteria guzia arrunt  
usteldua da. Usteldua. Ikusten bazintu, jaun erretora, ikusten bazintu,  
igande arratsetan zer artzen diren, sasi zoko horietan... harri zintazke  
harri. Jainko maite zeruetakoa !... Ez gira hola usatuak...

Apeza : Ez segur ! Bainan, ontsa aditu ba dut segurik, sekulan "lac" hori egiten  
balitz, "danzing"-a hets omen lezake... Hori bera ez litake guti...

Maileona : Ez eta goizegi ! Bainan hobe, hobe beraz, nolazpeit bada nolazpeit hesten  
ba dute bederen. Nik ez dezaket konprenitu, Uztaritzeko seroretan ibilia  
den batek, holako gauzarik egin zezakeenik... Ez dezaket konprenitu...

Apeza : Jesukristo gure Jaunak barkatzen erakutsia dauku eta harria botatu  
aintzin...

Maileona : (Moztuz). Ba da hein bat halere !

Apeza : Bego hortan, bego hortan. Bestalde ; herrian bakea ~~ukaito~~ ukaitekotz,  
merak eta apezak elgar aditu behar dute. Beraz ; jaun merarekin ez arras  
ados izanik ere, hautsi-mautsi bat egin behar dut. Il faut être diplomate  
dans la vie....

Hiruek : Arrazoina duzu jaun erretora, arrazoina...

Apeza : Merarekin ontsa izaita, beharrezkoa da.

Hiruek : Bixtan da baietz !

- Apeza : Zeren xantxa dugu, mera zuri baten ukaitea... Nun nahi sartzen ari dira orai mera gorriak... gorriak edo bederen gorrastak...
- Gaxuxa : Ez ginuke beste beharragorik ori, azen ontzeko ! Fentsatzeak berak hotz-ikarak emaiten dauzkit.
- Apeza : Eni ere bai. Hortakotz, oraiko hau ahal dugun bezain luzaz atxiki behar dugu, eta atxikitzekotz gure laguntza eskaini. Nere baimena ukana du. Zuen da orai, zerbaiten egitea...
- Kattalin : Ni jadanik hasia naiz.
- Apeza : Ederki. Ederki. Eta zer egin duzu, ez ba naiz sobera kurios ?
- Kattalin : Ori ; meza denboran , hiru hamarreko egin ditut "lac" aren alde
- Apeza : Ez da batere gaizki. Herritar guziek beste hoinbeste egin balezate, Jainkoa bera jin lezakegu laguntzerat. Funtsean, segur naiz jadanik zerbait eginik ba duela gure alde. Zeren "lac" hori karitate egiteko asmatua da. Ez bakarrik turixtentzat. Bainan "Goxa-leku" -rat etorriko diren haurrak ere balia ditezen ahal bezenbat.
- Gaxuxa : Aise, aise... Ahanzterat nindoan... Gaixo haurrak ! Biziki xarmantak dira, biziki eta ontsa ikasiak. Gureak balire bezainbat maite ditugu...
- Kattalin : Bai eta gure haurrak horier kontre frantses hortan trebatzen dira. Kolonia horrek gehiago irauin behar luke, haurrak elgarrekin ardura kurutza ditin eta hola, gureak ere ahoan bilorik gabe mintza litazke frantsesez.
- Apeza : Ze ba... ze ba... Ikusten dut arras ontsa konprenitzen nauzuela. Gainera, "lac" bat ukanez geroz, hemengo gauza guzien balioa haundituko da. "Goxa-leku"-ko alakeria ere doblatzen ahal ginuke...
- Kattalin : O bai eta gustu gustian oraino
- Apeza : Egungo egunean, zer nahi sos behar du apez batek. Zer nahi sos. Gauzak beti goiti ari dira... eta apezek, bestek bezala, ainitz diru xahutzen ez, gure bizi gordean haundizki ari girelakotz, Jainkoak beira ! bainan doi doia bizitzeko ere, ainitz sos behar baita... Ainitz sos.




Maileona : Beraz, egin dezagun lehen bai lehen "lac" hori, lehen bai lehen,  
horrela, "Goxa-leku"-tik bilduko duzun diru metarekin ontsa eta bakean  
bizi zaitezen eta obra haundi eta ederrak egin ditzazun gure Eliza Ama  
Sainduaren alde...

Apeza : Pour l'amour de Dieu, mes filles, pour l'amour de Dieu.

Gaxuxa : Et l'amour du prochain.

Lauek : Anen.

(Eta zeinatzen dira).



MERAREN ALDEKOAK

(Panpale, Benat, Maiena, Dore).

- Panpale : Zer mila sorgin ? ! Erranez geroz joan behar duela, ez dia obeditzen ahal ?
- Benat : Hik errak ! Ez nian uste to nik, holako puttikua ginuela guk hori !
- Panpale : Ez dela sekulan ur-geldiari fidatu behar, egia haundia segur...
- Benat : Bereziki ur-geldi hori eihera baten barnean delarik !
- Maiena : Jaun meraren eta Legearen kontra bere burua hoinbeste erakusteko; ni beldur gatu horrek ba duela beste buztanik...
- Panpale : Zer erran nahi duzu ?
- Maiena : Nik fitxik... fitxik... Bainan, politika poxi bat ba ote denez azpi hortan, ez nindaikete harri... Enbata hori nunahi sartzen ari baita ori...
- Dore : Enbata... Enbata, emeki, emeki. Ez gaiten halere nola nahika mintza. Nik bezain ontsa ba dakizu Pattin ez dela Enbatakoa.
- Maiena : Ez da beharbada oraino Enbata , bainan laster bilaka daiteke.Hortakotz, jendea abertitu behar dugu ; bestenaz xahu gira !
- Panpale : Xahu gira bai... zeren jaun merak dion bezala, "lac" hori beharrezkoa baita ; gu guzientzat. Beharrezkoa !
- Maiena : Eta nola ! "Lac" horri esker gure gazteak kanpanan geldituko dira... Bestenaz ez !
- Benat : Arrazoina duzu. Udan, belarrak bildu-ta gero, denak meinatzen ahalko dira gustu gustuan...
- Panpale : Bestalde; gure eiherazeinari bere espantu txarrak sartuko zaizko bai jandarmen erdian joan beharko duelarik hortxetan harat, bai berak, bai bere familia guziak... Zer uste du ala, jandarmer ere buru egitea ? Gaixo inoxenta !
- Dore : Entzun dudana ; emaztea omen da arrunt oldartia...
- Maiena : Juhan zako ori... Hobe luke barneko aferetaz arta gehiago hartzea... ezinez-eta eskanda egiten artzea... Ahalgingarria ez bestea...

Panpale : Mera eta kontseilukoak gizon onak dira. Bakea eta ordrea xekatzen dute ez eta eiherazainak bezala, samurgoa. Zeren, fitxik gabe uzten balute bederen, orduan bai ba luke zerbaiten erraiteko dretxoa... bainan etxe bat eskaintzen diote eta bost miliun gainera ! Ez baita guti... Nik ba nintu !...

Benat : Bainan zer den haatik aski txarra eta keneroa izaitea : beren parrak nahiz bete, familia guzia zernahi erranka ari omen da meraren kontra...

Dore : Bai eta batzuek horien gezurak sinesten eta... eiherazainaren alde bermatzen.

Panpale : Ezagutzen ditiat. Gaizo atunak ! Funtsean, ba dakitek bai zer ari diren... bereziki makinun apostolu haundi horrek...

Benat : Ez dituk ez, "Arteko Eihera"-koez kexu ari. Ba pentsa ! Beren intresak ditizkek lehenik zaindu nahi...

Dore : Alabainan, "lac" hori egiten bada ; ez balitake hemen usain zikinik behar... eta jauntto horiek ez bailakikete abere-pixa nun ezar...

Panpale : To ; nik banakikek segurik... Askiz ditek ipurdi zilotik sartzea ! Horra.


Dore : Zilo andana bat beharko litakek, to !

Panpale : Asetzen hasia nauk gero, azkenean, bere istorio-misterioekin. Asetzen ! Ez diat gehiago gauaz behar den bezala lo egiten ere.

Maiena : Ikusiak ikusi, zerk hatxeman behar gintuen orai ! Hoinbeste botia, eihera txar baten gatik. Balio baitu, balio baitu...

Panpale : Zuk errazu ! berdin jakinki-ta, goiz ala berant joan beharko dutela ! Eta ; ez balin bada Frantzia guzian aski jandarme horien hortik kasatzeko, guhaurek eginen dugu behar dena : gure fuxinen puntan hartuko ditugu eta hemendik firrindika igorriko, ez ditzagun sekulan gehiago gure begien bixtan ikus !

Beste hiruek : Arrazoina duzu ; arrazoin osoa. Ez dute besterik merexi ! Bakearen izenean ; goazen gure fuxinen xeka !



EIHEZAINAREN ALDEKOAK

-----

(Gilen, Manez, Ttotte).

- Gilen : Kanpoze ele ederra eta barnez maltzurra ; horra nolakoa dugun gure jaun mera...
- Manez : Maltzurra ; hitz ahula duk... Nik erran nezakek : arrunt tzarra ! Zeren; beti entzun diat, norbaitek saldu nahi ez duen gauza baten bortxaz kentzea, ohointza bat dela ! Eta eiherazainaren kasuan ez ote da horrela gertatzen ?
- Ttotte : Eta nola ! Ez ziteian segur hori merezi !...
- Gilen : Meraren urgulu zozoak eta beste batzuen diru-goseak horra zer ekarri daukuten : nahaskeria guziak horien faltaz dituk. Eta gero, nork du pekatuko ? gu bezalako jende xeheak...
- Manez : Alabainan, "putzu" hori eginez zer probetxu dugu laborariek? Deus... Deus...
- Ttotte : Probetxurik ez eta gehiago dena gure kaltetan litakek. Guk, laborantza diaguk aldatu eta berriitu behar gure araberako politika bat pentsatuz eta segituz. Zeren, Pariseko manatari haundiak aise mintzo dituk bai, Parisetik... gure eskualdeaz fitxik jakin gabe, bainan guk, hemengoa diaguk ikusten eta senditzen...
- Manez : Senditzen... Batzuek bai ; ez denek. Gure merak segurik urruneko eta noiztenka baizik ikusten ez dituen jaunekin nahiago dik ontsa izan ezinez eta hemengo jende ezagunekin.
- Gilen : Ez nian sekulan asmatuko hortaratuko zela. Sekulan. Familia baten bere sort-etxetik kanpora igortzeko kapable den batek, ez zakiat bada bihotza nun duen ? !
- Manez : Bihotza nun duen ? Bainan mutikoa, bihotzik ez dik. Bihotzaren lekuan moltsa dik ezarria. Moltsa eta... ohore gutizia.
- Ttotte : Ontsa pentsatu eta, izigarri duk bai eiherazainari gertatzen zaiona... (Publikoari hurbiltzen da). Nahi zinukete zuek, onart eta konpreni

zinezakete zuek, egun batez ; norbait heldu balautzue erranez etxea behar duzuela lehen bai lehen hustu... zuen etxearen, zuen etxe maitearen tokian, batzuek "putzu" bat egin nahi dutelakotz ? Zeren ; eiherazainari gertatzen zaiona, berdin berdina, zueri ere gertatzen ahal zaizue ! Zer egin ote zinezakete orduan ? Zer ? Mutu eta geldirik egon ote zintazkete ? Nigar xorta bat ixur eta paso ? Ala... (Berriz, besteeri buruz doa). Nik segurik neure hautua egina diat, eiherazainaren alde mintzatuko nauk eta bermatuko . Gure eginbidea hori duk.

Beste biek : Hire gogo bereko gaituk.

Ttotte : Mementoan, ainitz jendeek ez dakitek oraino egia nun den...Gutiz gehienek uste ditek merak duela arrazoïn ; alabainan oraiko politika guzia, haundi eta haundi-nahien intresentzat egina duk... heiek dretxo eta ahal guziak ba ditiztek jende xehearen gogo-bihotzak beren alde itzulikarazteko...

Gilen : Arrazoina duk. Nihaur ere harritua egoiten nauk, auzo herrietako jendeak entzuten dituztalarik... Denak gure meraren alde mintzo dituk... eta segur naiz Kasik nehork ez dakitela xuxen, zer pasatzen den gure herrian...

Ttotte : Ez, ez dakitek. Ez dakitek gure meraren eta bere lagun batzuen jokoa zoin den ... Ez dakitek sort-etxe baten uztea zer ditakeen. Ez dakitek, "putzu" hori, makur doatzin ainitz gauzaren kukutzeko eta tapatzeko egina dela ... Ez dakitek... Bainan nik erranen zioteliat hasteko, "lac" horren egitea baino presatuagoa dela bide batzuen gudronatzea. Zeren; jaun andereak, ba ote dakizue, gure herrian, hiruetan hogoi kilometra bide falta ditugula ? Hori ez. Hori ez dautzue erran. Holako berriak ez dira jakiten ! Eta ba ginuke oraino ainitz erraiteko. Ainitz eta ainitz.

Manez : Patin horkoa duk ; hor behar dik egon. Eta meraren aldekoek biziki haundi hatxemaiten baitute 400.000 liberaren emaita hortik joaiteko, nahi nitek jakin, egungo egunean, zer egiten ahal den 400.000 libera zaharrekin?... Patin-ek fitxik ez omen duela ? Fitxik ez duelako behar ote litake deus gabe utzi? Bestenaz ere, fitxik ez duen batek ez ote du beste batek baino

gehiago behar eta merezi ? Zeren ez dezagun ahantz : eihera orai berea duela ! Beraz, ez litakek hori karitate egitea, kontseiluko batzuek dioten bezala, baizik bere zuzenaren ardiestea !

Ttotte : Kontseilukoak ere ez dituk ez hain fier. Batzu segurik, nagok ez ote diren tronpatuak izan, gure mera xanpiuna baita hortako! Zonbat gezur, azpijoko eta tripustelkeria barne hortan... bainan ni beldur, azken mementoan, haragia antxu-usteldua izanen delarik, garratoi eta beleak hemendik joanen direla... Kontseiluko gaizo gizonak debalde utzirik !

Gilen : Aski haundi dituk ez, orai beretik ikusteko zer egin behar duten... Ez nuk ni segurik, ondotik, horien pleinitzen ariko...

Ttotte : Alta, ni ere ez. Zeren herriko afera guzietaz behar bezala arta hartzeko partez ez ditek "putzu" hori baizik gogoan ; eta bestalde, gure sosa, herri guziaren onerako enpleatzeko partez, tribunale horietan xahutzen ditek nola nahika eta bixtan duk gure balmenik gabe. Horra beste eskandala bat jendeek jakin behar dutena ! Jaun meraren furfuriak zonbat gosta dira herritarrerri ? Nork ihardetsiko daut ?

Manez : Nik segurik ez... Eta hortan fini balitz bederen... Alta, bakea nahi ginikek, ahal bezain fite.

Ttotte : (Publikoari buruz). Bainan nola egin dezakegu bakea, gizonaren zuzen premiatsuenak berak ez balin badira errespetatuak ; nola egin dezakegu bakea, arrano beltzaren aztapar ziztrodunak gure buruen gainean senditzen dituguno ? Eta ororen buru, "bakea" zer da ? Noren "bakea" ? Nork egin "bakea" ? Haundi-maundiek ezarri edo ezarri nahi duten "bakea" ala ttipiek, ttipiendako irabazi eta finkatu bakea ?

Gilen : Bakea, bakea nahi dugu bai, bainan ez edozoin bake !

BORROKA	oooooooooooooooooooo	BORROKA	BORROKA
-----	=====	-----	-----
	oooo oooo oooo oooo		

Eiherazainaren alde eta kontra direnen artean borroka egiten dute Gero, dantza baten bitartez ikusten dira erortzen : auzapeza, apeza, Gaxin ; hots, manatariak.

A Z K E N    H I T Z A

-----

Eiherazaina : Hori zena "utilité publique" delakoa ?

Boz batzuek : EZ ! EZ ! EZ ! EZ!

- Guretzat, l'utilité publique aspaldian igurikatzen ditugun bide gudronatuen ukaitea litake.
- Guretzat, l'utilité publique gauza presatuenen egitea litake, ez eta herritarretarik bildu diruaren nola nahika xahutzea...
- Guretzat, l'utilité publique herriko laborarien alde bermatzea da, laborantzaren salbatzea, turismoari sobera inportantzia eman gabe.
- Eta bestalde, guretzat, l'utilité publique , gain gainetik gizonaren errespetatzea da.

oooooooooooooooooooo

- Guretzat l'utilité publique zer den, guhaurek ikusi behar dugu ez eta beti arrotz eta hemengo manatarrien erraneri segitu.

Iholdin,

1974.eko abenduaren 29an.